

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide hauen bitartez enpresa batek aurrera egin ahal izango du eta hurrengoko sailkapena egingo dugu gure enpresaren funtsezko baliabideak aztertzeko.

Baliabide fisikoak: Gure proiektuaren zati nagusia naturan bertan egingo da, Urdaibaiko Biosferako erreserban, hain zuzen ere eta lo egiteko Mundakako Portuondoko kanpineko instalakuntzak erabiliko ditugu. Horretaz aparte ordenagailu bat eta telefono mugikorrak izango ditugu.

Baliabide intelektualak:

Medikuntza ikasketak egiten ari da eta jadanik Lehen Sorospen eta ur sorospen ikastaroa du, bihotz-biriketako berpizteko oinarrizko praktikak egin ditu. Gurutze.Gorrian bolondresa da eta itsasoan hainbat erreskateetan esperientzia du.

Peru Herault: SSCB0209 Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren dinamizatzailea da eta Zuzendaria ere bada. Gainera salmentarako abilezia du eta marketinaz arduratuko da.

Mikel Urkidi: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak ikasten ari da eta oso kirolari trebea da. Surf monitoreo da eta orain arte surf eta paddle eskolak eman ditu udan zehar Mundakan eta inguruko hondartzetan.

Giza baliabideak: Hiru bazideok lan-egingo dugu enpresan eta oinarrizko baliabideak izango gara. Huekin batera, aliantzak sortu ditugun beste enpresen pertsonen ere berebiziko garrantzia izango dute gure proiektua eta jarduerak aurrera eramanez ahal izateko.

Finantza baliabideak:

Gure proiektua finantziatzeko hurrengoko baliabideak ditugu:

- **Barne-baliabideak:** Bakoitzaren kapitala da: 10.000€ guztira (Eneko:3000€, Peru: 3.000€ eta Mikel: 3.500)
- **Kanpo-baliabideak:** Ekintzaileei bultzatzeko laguntzak: 3.000€. Hau ere kostugabekoa izango da.
 - Guztira: 13.000€

Bankuari mailegua,kostuduna : 20.000€.